



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A
Lehen Mailako Arretako Farmazia
e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2025eko urria	
AEMPS - Giza erabilerarako medikamentuen segurtasun-buletina - Segurtasun-oharra - Informazio-oharra	1 Jarraitu irakurtzen
PRESBIDEKO BERRITASUNAK - Semaglutida, klopidogrela eta klopidogrela eta azido azetilsalizilikoaren konbinazioa preskribatzea finantzatu gabeko indikazioetarako - Errezeta elektronikoaren interoperabilitatea Zipren	2 Jarraitu irakurtzen
2025/2026 ALDIRAKO GRIPEAREN KANPAINA Osasuneko sailburuak 2025eko Gripearean kanpaina aurkeztu du, aurten berritasun batekin: 75 urtetik gorakoentzako txerto indartua.	3 Jarraitu irakurtzen
ARGITALPEN INTERESGARRIAK - Sendagaiak Zentzuz Erabiltzeko Oharra: azitromizina - Gida kliniko berria: aho lehorra - Arrisku handiko medikamentuak: errorearen prebentzioa eta jardunbide egokiak - Helduetan obesitatea tratatzeko farmakoterapiako praktika klinikoaren gidaren eguneratzea - Nola aukeratu mina arintzeko medikamentu antiinflamatorio ez-esteroideo bat	4 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK	5 Jarraitu irakurtzen

1	AEMPS
----------	--------------

Giza erabilerarako medikamentuen segurtasun-buletina:

2025eko irailean [Giza Erabilerarako Medikamentuen Segurtasunari buruzko Buletina](#) argitaratu da, eta han farmakozaintzako datuen aldizkako ebaluaziotik eratorritako segurtasunari buruzko informazio berria biltzen da. Ebaluatutako medikamentuen artean, honako hauek nabarmentzen ditugu:

- Azatioprina:** atzealdeko entzefalopatia itzulgarriaren sindromea, interakzioa alopurinolarekin, haurdunaldiko kolestasia, pelagra eta beste batzuk.
- Bisoprolola/azido azetilsalizilikoa, bisoprolola/hidroklorotiazida:** hipogluzemia.

- **Donperidona:** feokromozitoma.
- **Tapentadola:** interakzioa antikolinergikoekin eta gaindosi hilgarria.
- Birus biziarekin egindako **txertoak**, **barizelaren** aurkakoak (Varilrix®, Varivax®) edo **elgorria**, **parotiditisa**, **errubeola** eta **barizelaren** aurkakoak (Priorix Tetra®): aurrez ezaguna zen entzefalitis arriskuaren alderdi berri bat.
- **Nikotina:** fibrilazio aurikularra.

Gainera, **klozapinaren** segurtasunari buruzko komunikazio bat jasotzen du, kontrol hematologikoen gomendioen eguneratzea barne hartzen duena.

Segurtasun-oharra:

AEMPSek jakinarazi du ez dagoela **haurdunaldian paracetamola** erabiltzearen eta **haurren autismoaren** arteko kausazko harremana egiaztatzen duen ebidentziarik. Beraz, haurdunek medikamentu hori erabiltzen jarrai dezakete beharrezkoa denean, beti ere, mina edo sukarra arintzeko ahalik eta dosi txikiena eta ahalik eta epe laburrenean hartzeko gomendioari jarraituz. [Esteka](#)

Informazio-oharra:

Europar Batasun osoan **medikamentu ilegalen online publizitatea eta medikamentu horien salmentak** areagotu direla jakinarazi eta areagotze horrek dakartzan arriskuen berri eman dute Sendagaien Europako Agentziak (EMA) eta Medikamentuen Agentzietako Buruen Sareak (HMA), AEMPS sare horretako kide izanik.

Azken hilabeteetan, pisua galtzeko eta diabetesa tratatzeko GLP-1 hartzailaren agonista gisa (semaglutida, liraglutida eta tirzepatida) merkaturatutako medikamentu ilegalen kopurua asko areagotu da. [Esteka](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2 PRESBIDEKO BERRITASUNAK

Bisatudun medikamentuak finantzatu gabeko indikazioetarako

Presbiden ondorengo medikamentuak finantzatu gabe gisa preskribatzeko aukera jarri da, “Ikus-onetsia behar du” aukera desklikatuta:

- Semaglutida
- Klopidozela
- Klopidozela eta azido azetilsalizilikoaren konbinazioa

Ikus-onetsia behar du ☒

Era berean, finantzatu gabeko indikazioetarako preskriba daitezkeen bisatudun medikamentuak jasotzen dituen [dokumentua](#) eguneratu da intranetean.

Errezeta elektronikoen interoperabilitatea

2025eko irailaren 17an, Ziprera hedatu zen errezeta elektronikoen interoperabilitate zerbitzua. Horrela, Portugal, Kroazia, Polonia, Finlandia, Estonia, Txekiar Errepublika, Grezia eta Lituaniari gehitu zaie Zipre, herrialde horietan zerbitzua jada martxan baitzegoen.

Pazienteek euren medikamentuak jaso ditzakete Europako herrialde horietako edozein farmaziatan, errezeta paperean aurkeztu beharrik gabe.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3 2025/2026 ALDIRAKO GRIPEAREN KANPAINA

“Zu zara funtsezko pieza gripea saihesteko. Jarri txertoa” leloarekin, Urriaren 6an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetza txertaketa-kanpaina abiarazi dute.

Osakidetzak arreta jartzen du haurren txertaketan eta haurdun dauden emakumeengan, xede-populazio gisa. Aurreko edizioan arrakasta handia izan zuen haurren txertoak, % 41era iritsi baitzen (aurrekoa bikoiztuz) eta %52ra haurdunen kasuan. Edizio honetan, zifra hori are gehiago handitzea da helburua. Zitazio-bideak gaituta daude jada, bai Osakidetzaren webgunearen bidez, bai osasun-zentrorara deituta. Informazio gehiago eta adierazpenak Irekian: <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/104853>

Hauek dira aurtengo kanpainan erabiliko diren txertoak:

Gripearen aurkako txertoak	Xede-populazioa
Fluenz® intranasal	24 hilabetetik 59 hilabetera bitarteko haurrak eta 5 urtetik gorako eta 15 urtetik beherako haurrak arrisku-baldintzaren batekin
Influvac®	6 hilabetetik 23 hilabetera bitarteko haurrak ≥ 5 eta < 75 urte bitarteko biztanleria Egoitzetan bizi diren 50 urtetik beherakoak
Fluad®	≥ 75 urteko biztanleria Egoitzetan bizi diren ≥ 50 urtetik gorakoak
Flucelvax®	≥ 6 hilabetekoak, arrautzarekiko eta aminoglukosidoekiko alergia dutenak
COVIDaren aurkako txertoak	Xede-populazioa
Comirnaty® LP.8.1 3 mcg	6-59 hilabete bitarteko haurrak arrisku-baldintzaren batekin
Comirnaty® LP.8.1 10 mcg	≥ 5 urteko haurrak eta 11 urtera arte arrisku baldintzaren batekin
Comirnaty® LP.8.1. 30 mcg	≥ 75 urtekoak eta ≥ 12 urtekoak arrisku baldintzaren batekin

Txertaketa-gomendioak kontsulta daitezke hemen:

[ARABAKO ESI-KO INTRANETA](#)
[INTRANET KORPORATIBOA](#)



[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

Sendagaiak Zentzuz Erabiltzeko Oharra

SZE ohar berri bat argitaratu da: "Antibiotikoen erabilera arduratsua: Azitromizina". Fitxa honako [esteka](#) honetan kontsulta daiteke. Webgunean eskuragarri daude [argitaratutako gainerako oharrak](#).

Gida kliniko berria (Guiasalud): aho lehorra, jarrera terapeutikoa

[Gida honek](#) esparru bat eskaintzen du diagnostiko goiztiarra, maneiu eraginkorra eta konplikazioen prebentzioa hobetzeko, eta ondorioz, xerostomia duten pazienteen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen du.

Arrisku handiko medikamentuak: erroreen prebentzioa eta jardunbide egokiak

Kanarietako osasun-sistemaren medikamentuen erabilera arrazionalari buruzko Kanarietako Buletinak (BOLCAN), uztailera [argitalpenean](#), "Arrisku handiko medikamentuak: akatsen prebentzioa eta jardunbide egokia"-ren inguruko errebisio bat egin du.



Helduetan obesitatea tratatzeko farmakoterapiako praktika klinikoaren gidaren eguneratzea

CMAJ aldizkariak (Canadian Medical Association Journal) helduetan obesitatea tratatzeko farmakoterapiako praktika klinikoaren [gidaren eguneratze bat](#) argitaratu du.

13 gomendio jaso dira (6 berri eta eguneratutako 7); horiek farmakoterapia epe luzera erabiltzearen alde jotzen dute, ohitura osasuntsuekin batera, obesitatea tratatzeko. Gomendioak eskaintzen dira honako gaixotasun hauek tratatzeko, besteak beste: gaixotasun kardiobaskular ateriosklerotikoa, 2 motako diabetesa eta osteoartritisa.

Nola aukeratu mina arintzeko medikamentu antiinflamatorio ez-esteroideo bat (AIEE)

Australian Prescriber aldizkariak argitaratu duen [artikulu](#) batek helduen mina arintzeko AIEEn hautuan jartzen du arreta. Horretarako, paziente bakoitzaren berezko ezaugarriak zein beharrak kontuan hartzen ditu, baita hautatutako farmakoaren segurtasun-profila ere.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5 MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

Hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Pankreoflat® 172/80 mg konprimituak
- Bilastina (Ibis®) 6 mg/ml kolirioa
- Beklometasona dipropionatoa (Beclo-rino®) 50 µg sudurreko pulberizazioa
- Klomipramina (Anafranil®) 25 mg anpoilak
- Colircusi fenilefrina® 100 mg/ml kolirioa (**atzerriko medikamentu** gisa eska daiteke)
- Hidrokinidina 300 mg askapen luzeko kapsulak (**atzerriko mendikamentu** gisa eska daitekeen baieztatzeko zain)
- Pregabalina (Pramep® y Premax® EFG) 20 mg/ml ahozko soluzioa

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Buprenorfina 52,5 µg/h (96 h) eta 35 µg/h (72 h) partxe transdermikoak
- Klobazam (Noiafren®) 10 mg. konprimituak
- Etambutol (Myambutol®) 400 mg konprimituak
- Diltiazem retard 200 y 300 mg askapen luzeko kapsulak
- Bifonazol 10 mg/ml larruazala pulberizazioa
- Menotropina (Meriofert® KIT) 75 UI y 150 UI injehtagarria
- Gonadotropina korionikoa (Gonasi® KIT) 5.000 UI injehtagarria
- Oftalmolosa cusi aureomicina® pomada oftalmikoa
- Oftalmolosa cusi eritromicina® pomada oftalmikoa
- Dexketoprofeno 50 mg/2 ml anpoilak
- Novomix® 50 flexpen susp. aurrez kargatutako luma
- Okteotrida (Sandostatin® 10 mg y 30 mg)
- Semaglutida 0,5 mg y 1 mg injehtagarria
- Lebotiroxina 25 mcg konprimituak
- Inaladuo® Accuhaler 50 µg/100 µg inhalatzeko hautsa
- Megestrol azetatoa (Maygace® dosi handiak 40 mg/ml ahozko suspentsioa)

PRESBIDEn “Hornidura eza” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbiden: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuen hornidura arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia
Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.

Iradokizunak edo iruzkinak egiteko, bidali posta elektronikoa helbide honetara:

ARABAKO ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetzaren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez
